



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko abenduaren 19a

70 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).

—Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua. Atzera bidalitako emendakinak (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Iruñeko Hizkuntza Eskolako ikasle kopurua eta ikasleen bizilekuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

A SAILA:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proiektu hori 1996ko azaroaren 26ko 64 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOAREKIKO EMENDAKINAK

«EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Osoarekiko emendakina, Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea proposatzen duena.

Zioak: Foru Lege proiektuaren eduki batzuekin ados egon arren, Parlamentuko Talde honek, kontuan izanik Parlamentuan sortu egin dela zerga-arautegia eta horren aldaketa aztertu eta ikertzeko Batzordea, eta aldaketan garrantzia, halaber Gobernuak berak sortu duen nahasmendua, izan ere, proposatutako aldaketari buruzko iritzi aldatkorra izan du eta Nafarroak zerga arloan dituen eskumenen kontra jotzen duten Gobernu zentralaren eskakizunei men egin die, uste du aipatu proiektua ez dela izapidatu behar horretarako propio sortu den Batzorde Bereziaren lana burutu eta zerga-dirusarreretan izango diren eraginei buruzko informazioa izan arte.

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena: Sozietateen gaineko Zergak pertsona juridikoek ateratako mozkinak zergapetzen ditu, funtsean; beraz, PFEZekin batera, tributazio zuzenaren oinarritzko tresna gisa jo daiteke.

UPNko gobernuak proposatu eraberritzea, besteak beste karga-tasa orokorra bi puntu eta erdi murrizten duena, enpresari eta kapital errentak zergaz kanpo uzteko politikaren baitan kokatzen da. Eskubi ekonomikoa aspalditik eskatzen ari da hori eta badirudi eskubi politikoa prest dagoela aurrera eramateko.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernu berriro ari da bestelako zerga-administrazioen jarduketan atzetik, gure komunitatearen errealitate eta eskarmentuari egokitutako ekinbide eta proposamen berekiak aurkeztu gabe; gogoratu beharra dago Nafarroako Foru Komunitateak eskumen handiak dituela zuzeneko zergetan, euskal diputazioei aitortzen zaizkienak baino askoz handiagoak, esate baterako, eta beraz, gure komunitateak duela gaitasunik handiena osoko ekinbideak hartzeko, beste administrazio batzuek bultzaturiko zatiko erreformak kopiatu gabe.

Hala ere, Nafarroako Gobernu ez da inongo eztabaidarik edo Nafarroako zerga-ereduaren azterketa orokorrik planteatzen ari, bai ordea enpresari errentak piskanaka-piskanaka zergapetzetik at uztera jotzen duen politika baten baitan sartzen diren neurriak besterik gabe Nafarroatzea proposatzen.

Enpresek erabiltzen dituzten zerga-onuren garrantzizko hazkundera dakar eraberritzeak, eta praktikan, teoriako karga-tasa orokorra nabarmen jaisten dute; horretaz gain, dela urte batzuk ekonomi krisia larria zenean enpresarien inbertsioari zerga-pizgarriak eman behar diren aurrean behin-behinekotzat defenditu ziren neurriak behin betikotzat hartu nahi dira orain.

Sozietateen gaineko Zerga eskubiko Gobernuak bidali bezala onartzen baldin bada, "opor fiskalak" edo inbertsioetarako erreserba berezia bezalako neurriak zerga-onura egiturazko edo iraunkor bihurtuko dira, eta enpresek erabili ahal izango dituzte kontuan hartu gabe egoera ekonomiko orokorra edota emaitzen kontua.

Azken ondorioa hauxe besterik ez da izango, alegia, Sozietateen gaineko Zergaren bitarteko zerga-presioa nabarmen jaitea eta Foru Ogasunak diru gutxiago biltzea; argibide gisa, gogora dezagun 1995eko foru B.P.G.ren 100eko 2a zela zerga horretatik ateratako dirubilketa, Europako Batasuneko batez bestekoa 100eko 3 den bitartean (100eko 50 gehiago).

Salbuespenak salbuespen, Zergaren egungo tasa, 100eko 35az ari gara, OCDEko baxuenetakoa da. Gainera, ezin daiteke esan zerga honen presioaren nazioarteko joera beheranzkoa dela, orokorrean, Frantziak, Erresuma Batuak eta Irlandak tasak jaitsi dituzten arren, Alemaniak, Belgikak, Italiak, Estatu Batuek, Kanadak eta Japoniak igo egin baitituzte.

Nafarroako Gobernuak zuritu egin nahi ditu lege proiektuari erantsitako zerga-onurak esanez proposatzen dituen neurriak beharrezkoak direla gure komunitateko ekoizpen aparatuak lehiakortasun mailari eusteko.

Nafarroako IU/EBren ustetan, argudio horrek ez du funtsik, enpresen lehiakortasuna gauza askoren menpe dagoelako (azpiegitura, prestakuntza, I+G, ekoizpen-inguru garatua...), Sozietateen gaineko Zergaren eragina horren handia ez delarik. Eraberritzeak inbertsioan eta enpleguan izan ditzakeen ondorio onak zalantzan jartzeko modukoak dira, bederen. Inbertitzeko edo ez inbertitzeko erabakia hartzeko orduan, Sozietateen gaineko Zergak bizpahiru puntu gora edo behera egiteak ez du ia-ia eraginik, eta enpleguari gagozkiolarik, lege proiektuak ez ditu behar bezala lotzen zerga-onurak eta enplegua sortzea. Horri buruz esan behar da euskal diputazioek aurrerago egin dutela enplegu sorkuntzan zerga pizgarrien bidez.

Edonola ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko legea Gobernuak bidali bezala onartuko balitz, dirubilketa nabarmen jaitziko litzateke eta horrek larriagotu egingo luke foru ogasunaren finantza egoera eta, Nafarroako IU/EBren ustetan, zerga sistema osoak lan-errenten aurka duen desoreka areagotu.

Hori horrela, Nafarroako IU/EB Parlamentari Taldeak proposatzen du Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Adolfo Araiz Flamarique, "Ezker Abertzalea" Talde Parlamentarioko eleduna naizen honek,

Legebiltzarreko Araudiko 126. artikulua ariora, Elkarteen Gaineko Foru Lege proiektuari osotasuneko emendakina aurkezten diot, eskatuz Nafarroako Foru Aldundiari Legebiltzar honek itzul diezaion.

Hona eskakizun horren argudioak:

Lege proposamen honek ez du behar bezala betetzen zerga honen helburu nagusia: entitate juridikoek lortutako mozkinak behar bezala zergapetzea. Foru Lege proposamen honen egitura nagusiak ez baitio erantzuten betebeharrak nagusi horri, baizik eta murriztu egiten ditu mozkinetatik Haziendak lortu behar dituen diru sarrerak.

Garai batean eta epe motz baterako aurkeztu ziren "opor fiskalak" direlakoei, hau da inbertsioetarako erreserba bereziko dotazioak direlako zergape murrizketei, betiko izaera eman nahi zaie. Baina direlako "opor fiskal" horiek ez dute inolako eraginik izan enplegua sortarazteko.

Gainera, zergaren tipoa jaisteak adierazten du berriro ere kapitalaren mozkinak gero eta zergape tikiagoaz ipini nahi direla eta hori atzerakoia izateaz gainera ez dator bat zergapeak eragin behar duen ondasunen berbanaketa sozialarekin.

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuari osoko emendakina aurkezten dio.

Zioak: Lege proiektuak berez duten dirubilketa zereginaren baitan hartu behar ditu zergak, diru-sarrerara aurrekontua gorabeherarik gabe prestatu ahal izateko. Inbertsioa, garapena eta enplegua sustatzeko neurri eta ekintzak gastu-aurrekontuan bideratu behar dira, funtsean.

Zerga-oinarria edo kuota murriztea erabiltzen duten zerga-neurriek enpresen kapitalizazioa eragin dezakete zeharka, hala ere, karga tasa benetako murrizketa huts gisa aritzen dira. Horregatik proposatu dugu zerga eraberritzea eta karga tasa ez-nominalak jartzea, benetakoak alegia, horrek zergari segurtasun juridikoa ematen diolako eta bermeak subjektu pasiboari, haien enpresari-estrategiari begira. Beste alde batetik, agerian geratzen ari da indarreko legeriaren babesean ezartzen diren babes eta sustapen neurriek, dirubilketarako ahalmena murrizteaz gain, zergen orokortasun eta banaketa zuzenaren hatsapenak urratzen dituzte-

la, zergadun ahulenek, askotan, ezin dutelako horietaz baliatu, eta beraz, zerga-zama ekonomia ahulenengana lerratzen da, ekonomia ahalmena eta antolamendu gaitasuna izateagatik zerga-onu-retara hobeto irits daitezkeen mesedetan.

Salbuespen gisa, eta Nafarroaren ekonomia-rendako berritasuna edo garrantzia dela eta, Sozietateen gaineko Zergaren onurak ematea merezi duenean, orduan bakarrik erabil daitezke inguruabarren arabera onurak, gainerako zergadunei kalterik eragin gabe, gainera.

Zergen dirua biltzeko eta birbanatzeko funtsezko izaera azpimarratuz, neutral izan behar dute eta zergapetze bikoitzik ez sortu; zuzenak behar dute, guztiei begira, eta aurrerakoiak, Konstituzio-ko 31. artikuluekin bat, zamei aurre egiteko gaitasuna kontuan hartuz.

Aipatu diren puntuei jarraiki, gure Taldeak uste du zatiko emendakin ugari aurkeztu behar diola Lege proiektu honi, eta horren hatsapenen aldaketa sakona eragin, funtsean, horiek guztiak oso-arekiko emendakin batean bilduz, alegia.

Gure Taldearen aburuan, ekimen hori fiskalitate guztia bil lezaketan neurri batzuen barruan baidarik ez liteke modu positiboan baloratu, halako moldez non ahalmen handiagoa duten ekonomidako onurak ahulenen kaltetan joango ez diren, hauen zerga ahalegina gutxituko delarik eta sistemaren aurrerakoitasun eta berdintasunari eutsiko litzaiokeelarik. Orobat, iruzurraren aurkakako neurriekin, batik bat elkartasun ez nabarmeneko sektoreetan, onurak eta betebeharrak orekatuko liratekeelarik. Horregatik denagatik Erabaki hau hartzea proposatzen dugu:

“Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126.5 artikuluan ezarrikoaren bat, itzuli egiten zaio Gobernuari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua.”

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

10. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 2. idazatiari aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

Zioak: Ondorengo emendakinek Sozietateen gaineko Zerga eta P.F.E.Z.eko ezarpen bikoitza kendu nahi dute. Hori dela eta, ez du inolako eraginik Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateek zerga batarengatik edo bestearengatik tributa dezatela. Hori horrela, komenigarritzat jotzen da bazkideei errentak esleitzeko araubidean tributatzaren segi dezatela, orain arte bezala.

2. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lege proiektuko 10. artikuluko 2. puntuari aurkeztutako emendakina, kentzekoa. Hona hemen haren testua:

“2. Errenten esleipenerako araubidea ez zaie aplikatuko Sozietateen gaineko Zerga ordainduko duten eraldaketarako nekazaritza sozietateei”.

Zioak: Sozietateen gaineko Zerga oso nahasia da, zerga-oinarria kalkulatzeko merkataritza legeriarekin dituen loturengatik. Hortik aparte, betebeharrak formal askoren beharra dauka. Horrek denak pentsarazten du ez dela oso egokia zerga hori mota orotako sozietate formalen menpe jartzea, horiek, gehienetan, nekazari txikiek osatzen baituzte, zergen inguruko aldrebeskerietatik kanpo bizi izan direnek.

Zentzuzkoagoa dirudi orain arte bezala, Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren arabera, tributatzaren segi dezatela. Hori zabalduagoa dago jende artean eta bai Administrazioaren aldetik, bai entitate pribatuen aldetik ere, sustengu guztia du aitorpenak urtean-urtean aurkeztu ahal izateko.

13. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

3. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lege proiektuko 13.3 artikulua ordeztzea, hone-la geldituko litzatekeena:

“3. Zuzeneko zenbastespen araubidean zerga oinarria kalkulatu da kontabilitateko emaitza Foru Lege honetan ezartzen diren manuek ezarritakoa doitzuz.

Kontabilitateko emaitza zehazteko, Merkataritza Kodean, zehaztaper horri buruzko gainerako

Legeetan eta arau horiek garatzen ematen diren xedapenetan ezarriko arauak aplikatuko dira.

Zerga oinarria zehazteko bakarrik, Zerga Administrazioak kontabilitateko emaitza aldatzen ahalko du, baldin eta aurreko lerroaldean aipatzen diren arauetariko baten bat betetzen ez dela frogatzen bada”.

Zioak: Zerga Administrazioak Zergaren likidaziotarako balio duten zerga oinarriak aldatzeko bakarrik izan behar du eskumena. Behin ere ez du eskumenik eduki behar enpresen kontabilitateko emaitza aldatzeko, kalkulu hori administratzaileen erantzukizun soila baita, Sozietate Anomimo-ei buruzko eta Erantzukizun Mugatuari buruzko Legeek eta Merkataritza Kodeak ezarri bezala. Lege horiei jarraiki, ez eta Akziodunen edo bazkideen Batzar Nagusiek ere dute eskumena urteroko kontuetan aurkeztutako kontabilitateko emaitza aldatzeko. Onetsi edo ez, horixe da egin dezaketen gauza bakarra.

Proposatzen den idazketak, bada, eduki teknikoagoa dauka, indarra duen merkataritza legeriari hobeki lotzen diolako eta, bestaldetik, Estatuak zerga honi buruz daukan Legeko testuarekin bat datorrelako.

15. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

4. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko 3. puntuari aurkeztutako emendakina, gehitzekoa. Hona hemen edukia:

“1. idazatian ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten elementuen amortizazioa, zergari dagokionez, kengarria izanen da frogatzen bada ondare-elementu horien balio-galera konponeziaren ondoriozkoak direla”.

Zioak: Arlo honetan Estatuak legeriako irizpideak ezartzea. Aurreikuspen hau ezarriko ez balitz, legezko hutsune bat legoke, ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten ondasun ez materialen (taldeko enpresei erositakoena, kasu) amortizazioaren zerga kengarritasunaren hatsapena eragotziko lukeena.

Kontutan har bedi Legeak behartuko duela, orain arte bezala, lotetsitako enpresen arteko eragiketa guztiak merkatuko prezioan baloratzea. Hori zuzentasunez egiten bada, ez dirudi zentzuzkoa dela aktibo ez materialaren ondasun mota

hori amortizatzeko kaudimenak ezartzea, gehienbat, balio-galera zehazki ziurtaturik dagoenean.

16. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

5. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluari aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

Zioak: Zerga-oinarria bereiziz gutxitzea beste xederik ez dauka. Kooperatibendako eta lan elkarre anonimoendako proposaturiko zerga araubideak aski diren abantailak dauzka. Beste bat gaineratu beharrik ez dago. Ondorengo emendakinetan proposatutako dugu kuotako kenkarien araubidea, enpresa berrien inbertsioengatik eta gehikuntzengatik, eta horrek l+Gko gastuak biltzen ditu. Gastu aktibatuei eta l+Gko inbertsioei aplika dakizkiekeen kontabilitateko hatsapenek behartzen dituzte gastutzat jotzera, proiektuaren kiebraren edo haren erabilgarritasunik ezaren berri jakin bezain laster. Bestaldetik, amortizazioen askatasun bereiztuaren araubideak astindu egiten du enpresen finantza egoeren berdintasuna.

6. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 1. idaztiari aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

e) letra kentzeko.

Zioak: Uste dugu ezin onartuzkoa dela Diputazioak, erregelamendu bidez, askatasun osoa izan dezala edozein ondare elementuren amortizazio askatasuna aitortzeko.

17. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

7. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 3.b) ataleko bigarren lerroaldeari

aurkeztutako emendakina, "halako bi" eta "aipatu muga horren barruan" esaerak kentzeko.

Zioak: Zerga-oinarria gutxitzea beste xederik ez dauka. Ondorengo emendakinek zerga-tasa gauzagarria aplikatzea proposatzen dute. Eskuari onarturik dauden kontabilitateko hatsapenak hautsi egiten ditu.

24. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

8. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Tituluko V. Kapituluko "Zergetan kendu ezin diren gastuak" izeneko 24. artikuluko lehen ataleko e) letrako leerroaldeari gehitzekoa:

"Ez da ulertuko letra honetan sarturik daudela bezero edo hornitzaileekiko harreman publikoen ondoriozko gastuak, ez eta, ohituren eta azturen arabera, Enpresako langileei buruz egiten direnak, ez eta, zuzenean edo zeharka, ondasun salmenta eta zerbitzu prestazioa sustatzekoak, ez eta dirusarrerekin zerikusia dutenak ere".

Zioak: Araua osatzea, ohituren eta azturen arabera Enpresaren jarduerarendako komenigarriak direnak gastu kengarritzat jotzen direlarik.

9. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

24.1.e) artikuluari aurkeztutako emendakina, bigarren leerroalde bat gehitzekoa. Hona hemen haren testua:

"Ez da ulertuko letra honetan sarturik daudela bezero edo hornitzaileekiko harreman publikoen ondoriozko gastuak, ez eta, ohituren eta azturen arabera, Enpresako langileei buruz egiten direnak, ez eta, zuzenean edo zeharka, ondasun salmenta eta zerbitzu prestazioa sustatzekoak, ez eta dirusarrerekin zerikusia dutenak ere".

Zioak: Arlo horretan, sor litezkeen liskarrak direla eta, uste dugu egokiagoa dela Estatuko legeriari jarraitzea. Lege horrexetatik dago harturik gure leerroaldea.

Saiatzen da Zerga-Administrazioaren eta zergadunen artean liskar asko sortu dituen arazo zaharra gainditzeko. Ez dakusagu arrazoirik arazo

hori konpontzeke uzteko, Estatuan egin direlarik behin betikoz konpontzeko urratsak.

27. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

10. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Tituluko VI. Kapituluko "Moneta balio-galera zuzentzea" izeneko 27. artikuluari aurkeztutako emendakina, azken leerroalde bat gehitzekoa.

"Letra honetan aurreikusia ez da aplikatuko koefizientea 0,4tik goitikoa denean".

Zioak: Kasu guztietan, c) letran aipatzen den kalkulua aplikatzea eragozteko, aktiboaren gehiena besteren fondoekin finantzaturik dagoen kasurako uzteko.

28. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

11. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Tituluko VI. Kapituluko "Balorazio erregelak: eragiketa lotetsiak" izeneko 28. artikuluari aurkeztutako emendakina, lehenengo ataleko lehenengo leerroaldea aldatzekoa.

1. Zerga Administrazioak, preskripzio epearen barruan, pertsona edo entitate lotetsien artean egindako eragiketak berauen merkatuko balio normalean baloratzen ahalko ditu, pertsona edo entitate lotetsiak kontuan hartuta, balorazioak Espainian, zerga honengatik eta, hala bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik, egokitu litzaiokeen zerga ordainketa baino txikiagoa zehaztu duenean, merkatuko balio normala aplikatzeagatik eta zerga ordainketa horren gerorare-menduagatik egokitu litzaiokeena baino txikiagoa, hain zuzen.

Zioak: Foru Ogasuna baino txikiagoa den zerga-ordainketaren aipuak eragiten du sistema Estatuko eta Euskadiko Administrazioekin bat ez etortzea eta horrek behartuko luke Estatuko Administrazioekin hitzarmenak izenpetzera.

30. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

12. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Emendakinaren xedea: lege proiektuko 30. artikuluko azkeneko lerroaldea ordeztzea. Haren ordeztzea hau ezar bedi:

“Administrazioak gehienez ere bi hilabeteko epearen barruan eman beharko dio erantzuna proposamenari. Epe hori iraganik, erantzunik ez bada, ulertuko da proposamena onartua izan dela”.

Zioak: Enpresa lotetsien arteko eragiketak Zerga Administrazioaren eta Zerga honen subjektu pasiboen arteko liskarren xede izan dira luzaz. Laudatzekoa da lege proiektuak ezberdintasun horiek gaintzen saiatzeko egin duen ahalegina, alde aurreko balorazio proposamen baten bidez. Horrek, dudarik ez, beharrezkoa den segurtasun juridikoa emanen luke eragiketa mota hau garrantzitsua.

Halarik ere, administrazio biderapenak, behin ere, ez du oztopatzen ahal enpresen funtzionamendu modua eta horixe gerta liteke gehieneko eperik ezartzen ez bada Administrazioak zergadunek arlo honetan mahaigaineratzen dituzten gogotei erantzuteko.

Pentsa bedi, adibidez, Nafarroan automobil alorreko enpresen artean dauden eragiketez. Askotan, nazioartean partaidetza amankomunak dituzten elkarten artean egiten dira. Zerga-Administrazioak transferentzien prezioak kalkulatzera koan izan litezkeen gehiegikeriak saihestu behar ditu, baina, horrekin batera, zuzenbidezko interesen defentsa eragiketa mota honetan agertzen zaizkion proposamenak aztertzerakoan arintasunarekin jokatzeko jakin behar du. Horri buruzko erabakiak ez du luzatu behar zentzuzkoa baino gehiago, bestela eragiketa mota honetan merkaturuan normalean dagoen jarduketan esku sartuko bailuke, horrela, gainera, segurtasun juridikoaren hatsapena hautsiko litzatekeelarik.

34. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

13. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

34. artikuluar aurkeztutako emendakina, 3. idazatik azkeneko adierazpena kentzekoa: “salbu era librean edo bizkorki amortiza daitezkeen ondare elementuei eta finantza-errentamenduko kontratuei buruz ezarritakoa”.

Zioak: Beste emendekin batean amortizazio bizkor eta libreak kenduak dira.

36. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

14. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Tituluko VIII. Kapituluko “Ohiz kanpoko mozkinak zerga-oinarrian ez sartzeko berrinbertsio kasu jakin batzuetan” izeneko 36. artikuluko lehenengo ataleko lehenengo lerroaldea aldatzekoa.

1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko, ibilgetu uki-garri edo ez ukigarriaren ondare-elementuen kostubidezko eskualdaketan lortzen diren errentak, errenta horiek moneta balio-galeraren arabera egokitu ondoren, urte bat lehenagotik gutxienez eduki badira, baldin eta eskualdaketa horien zenbatekoa lehen aipatu den edozein elementutan berriz inbertitzen bada, ondare-elementua eman edo eskura jarri aurreko urtearen eta ondorengo hiru urteen arteko epean inbertitu ere.

Zioak: Karga geroratua ustiapenari atxikia ez dagoen ibilgetuaren ondasunei zabaltzea, salbuespen horretarako ez baitago inolako arrazoirik, sistema hori baloretarako ezartzen denean.

15. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lege proiektuko 36. artikuluko 2. idaztiari beste idazpen bat emanen zaio. Hona hemen haren edukia:

“2. Zerga pizgarri aplikatzeko, beharrezkoa izanen da berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuek funtzionatzen irautea subjektu pasiboren instalazio beretan, salbu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren baimen berariazkoa bada 8. zenbakian xedatutakoaren arabera, 10 urtez, non eta ez dagoen justifikatutako galera edo bere bizitza erabilgarria laburragoa ez den. Aipatu elementuak epe hori amaitu baino lehen eskualdatzen badira, salbuespena galdu eginen da eta 6. zenbakian aurreikusia aplikatuko, salbu eta eskuratutako zenbatekoa berriz inbertitzen bada, 1. zenbakian ezarritako eran”.

Zioak: Ez-betetze kasu honen zerga trataera 6. zenbakian aurreikusiarekin bateratu nahi da, Lege proiektuan aplikatzeakoa den horretan “Berrinbertsioaren epea igorrotzen bada hura gauzatu gabe, funtsean betetzen ez badira obligazio formalak edo materialiazazio baldintzak”. Izan ere, horiek guztiek eragin bera dute salbuespen-araubide batean, aztergai dugun honetan, hain zuzen ere.

16. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

36. artikuluari aurkeztutako emendakina bukaera kentzekoa, hauxe: “eta bereziki eskualdaketa zenbatekoa berriz inbertitzen den ondare-elementuei aplikatzeko den amortizazio askatasunarekin”.

Zioak: Adierazpen hori ez da beharrezkoa. Izan ere, beste emendakin batean proposatu da amortizazio askatasuna eta amortizazio bizkorrak kentzea.

39. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

17. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzekoa.

39. artikulua. Likidazio-oinarria.

1. Likidazio-oinarria aterako da zerga-oinarrian eginez 40. artikuluan aipatzen diren murrizketak.

Zioak: Inbertsioetarako Erreserba Bereziari buruzko artikulua guztiak kentzeko emendakina.

41. ETIK 47. RA BITARTEKO ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

18. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

41., 42., 43., 44., 45., 46. eta 47. artikuluei aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

Zioak: Kendu nahi diren artikuluek asko gutxitzen dute Zerga honetako zerga-oinarria, Inbertsioetarako Erreserba Bereziaren dotazioa dela baldintza; IU/EBtik uste dugu zerga-onura hori ez dela eraginkorra enpresen inbertsioa pizteko, dirubilketa izanen lukeen oihartzuna, ordea, garrantzitsua izanen litzateke.

Bestaldetik, Zergak biltzen ditu inbertsioaren dako zerga-laguntzak, oso garrantzitsuak direnak (salbuespena inbertsioagatik, kuotako kenkaria....), herrialde arruntean daudenak baino gehiago.

19. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

41etik 47ra bitarteko artikuluei, biak barne, aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

Zioak: Emendakin hau zerga hau eta, bere garaian, PFEZ, funtsean dirua biltzeko eginkizunean uztea xede duen emendakin multzo bati dagokio. NDEk uste du zergen berezko eginkizuna dirubilketa dela, distortsiorik gabe dirusarreraren aurrekontua osatzeko. Inbertsioa, enplegua eta, baita, aurrezkoa sustatzeko neurri eta ekintzak gastu aurrekontuaren bidez bideratu behar dira. Oinarriaren edo kuotaren murrizketan oinarritzen diren zerga neurriak, zeharka enpresen kapitalizazioari laguntzen edo laguntzen ahal badiote ere, orokorrean, karga tasa eraginkorren murrizketa hutsak izaten dira. Hori dela eta, NDEk, ondorengo emendakinetan, proposatzen du zerga-tasak egoki daitezela, nominalak izatetik gelditu eta eraginkorrak izan daitezen eta, horrekin batera eta PFEZaren eraberritzearekin batera, errentaren gaineko bi zergak elkarrekin neutralak izanen dira eta ezarpen bikoitza saihestuko da. Bestaldetik, ikusi izan da aplikatu diren neurriak eta horien antzekoak zergen orokortasun eta justizia banatzaile hatsapenen aurkakoak direla, zergadun ahulenek ez baitute horietan parterik hartzen ahal.

Hori horrela, zerga tasa ekonomia apalenei gaineratzen zaie, egoera ekonomikoagatik edo antolamendurako gaitasunagatik, zerga onurez hobeki baliatzen ahal direnen onerako. Berriak direlako edo Nafarroako ekonomiarendako garrantzitsuak direlako Sozietateen gaineko Zergaren onuradun izatea merezi duten kasu horietarako, gainerako zergadunen kalterik gabe, inguruabarretan egoki diren hobarietarako emendakinak aurkeztu dira.

20. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Tituluko XI. Kapituleko 2. Saileko "Inbertsioetarako erreserba berezia" izeneko 41. artikuluar aurkeztutako emendakina, aldatzekoa.

1. Zerga-oinarrian murrizketa egin daiteke, hain zuzen ere, ekitaldian lortutako kontabilitate onuratik datozenak izan eta inbertsioetarako erreserba berezi baterako destinatzen diren kantitateen 100eko 45ean, Sail honetan zehazten diren baldintzetan eta beharkizunak betez.

2. Murrizketa hau gehienez ere izanen da zerga-oinarriaren 100eko 35ekoa, oinarria gutxiagotu ondotik, aurreko artikulua aipatzen dituen likidazio-oinarri negatiboetan.

Zioak: Proiektuaren mugek ekarriko duten arazo teknikoa saihestu nahi da.

21. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

42. artikuluar aurkeztutako emendakina, 1. puntua aldatzekoa, 25 milioi pezetaren orde, 10 milioi pezeta jartzeko.

Zioak: Zerga-onura hori Nafarroako enpresa txiki eta ertainei zabaltzea. Izan ere, horiexek laguntzen dute gehien enplegua sortzen gure Komunitatean.

22. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

42. artikuluar aurkeztutako emendakina, aldatzekoa. 25 milioi pezetaren orde, ezar bedi 8 milioi pezeta.

Zioak: Inbertsioetarako Erreserba Bereziko onura Nafarroako enpresa txiki eta ertainek, Nafarroan lana sortzen gehien laguntzen duten horiek, erabili ahal izatea.

23. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Tituluko XI. Kapituluako 2. Saileko "Zenbatekoa eta materializazioa" izeneko 42. artikuluar aurkeztutako emendakina, bigarren atala aldatzekoa.

2. Erreserba horretarako destinatzen den zenbatekoa materializatuko da hura dotatzeko mozkinak eman zituen ekitaldian edo bi urteko epearen barranean, ekitaldia ixten denetik hasita.

Ondorio horietarako ulertuko da materializazioa gauzatu dela ondare-elementua funtzionamenduan hasten den zergaldian. Dena dela, elementua eskuratzeko eskaera irmoa egin eta jasotze efektiboa izan arte bi urteko gora igarotzen badira, ondasunen kontura eginiko ordainketak egiten diren zergaldietan Erreserbaren materializotzat jotzen ahalko dira.

Zioak: Materializazioa erreserba hornitzea eragiten zuten onurak izan ziren ekitaldian egiten ahal izatea. Bada, gainera, zehaztapen tekniko bat, inbertsioaren ordainketa moduak ez baitu inolako eraginik izan behar.

24. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Tituluko XI. Kapituluako 2. Saileko "Materializatorako egokiak diren elementuak" izeneko artikuluar aurkeztutako emendakina, aldatzekoa.

"Inbertsioetarako erreserba bereziaren materializazioa, honako ezaugarri hauek dituzten ondare-elementuetan egin beharko da:

1.- Foru Lege honen ondorioetarako, aktibo finko bat ez dela berria ulertuko da, baldin eta aurretik beste pertsona edo entitateren batek erabili badu, alegia, haren ibilgetuaren barranean sartu badu edo hartan sartu behar izan balitz Kontabilitateari buruzko Plan Orokorretako arauetara jarraikiz, funtzionatzen hasi gabe ere.

2.- Lursailak ez izatea. Inbertsioa ondasun higiezinari badagokio, beti ere lurzorua balioa kenduko da.

3.- Finantza-errentamenduko araubidean eginitako inbertsioak sartzen ahalko dira, eraikinak ezik.

4.- Errentamenduaren edo hirugarrendako erabilpenerako lagapenaren xede ez izatea, salbu eta jarduera hori subjektu pasiboak garaturiko ustiapen ekonomikoaren ohiko eta eguneroko xedea bada.

5.- Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zerga Bereziagatik tributatu duten elementuak ez izatea, bai hari atxikirik ez daudelako edo, atxikirik badaude ere, salbuetsirik daudelako.

Zioak: Jardueren ondoriozko bereizkeria saihestea.

25. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

43.1 artikuluari aurkeztutako emendakina, aldatzekoa

Lehenengo lerroaldearen idazketa berria:

“1. Ibilgetu materialaren elementu berriak izatea, lursailak izan ezik, atxikiak daudenak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren tarifen Lehenbiziko Saileko 1etik 5era bitarteko Dibisioetan eta 72. Taldean sartutako jardueren garapenari, beti ere, maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legeko I. Eraskinean datorren sailkapenaren arabera.

Zioak: Garraio sektorea zerga onura honetan sartzea

26. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzekoa.

45 bis artikulua gehitzeko emendakina, hau esanzen duena:

“45. bis. artikulua. Enplegua sortzeko betebeharrak.

Sail honetan arautzen den zerga-oinarriaren murrizketari lotzea erabakitzen duten subjektu pasiboek, gutxienez ere, lanpostu bana sortu beharko dute batez besteko plantilan, eta, horre-

kin batera, mugarik gabeko lan kontratua duen beste lanpostu bana sortu beharko dute, Inbertsioetarako Erreserba Berezia hornitzen duten 10 milioiengatik.

Plantilaren gehitze horiek Inbertsioetarako Erreserba Bereziak mozkinak sortu dituen ekitaldia itxi eta bi urteko epearen barrenean egin beharko dira eta plantilaren gehitzea izan zeneko ekitaldia itxi eta hiru urtez eutsi beharko zaie.

Zioak: Nafarroako IU/EBn ulertzen dugu zerga-politika enplegua, bereziki, enplegu iraunkorra sortzeko tresna gisa erabili behar dela.

27. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

46.3 artikuluari aurkeztutako emendakina, aldatzekoa. Honelaxe geldituko da:

“3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren ez-betetze kasuetan eskatzen ahalko da atzerapen-korrituak, bidezko diratekeen zehapenen aplikazioa deusetan ukatu gabe”.

Zioak: Zehapenaz gain errekargua ezartzeak, egoera horretarako bakarrik, neurririk gabekoa dirudi. Badaude bestelako portaerak interes amankomunei kalte handiagoa eragiten diotenak, baina, zehapen arinagoa izanen luketenak.

50. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

28. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50. artikuluari aurkeztutako emendakina, 1 atala aldatzekoa.

1. a) Karga tasa orokorra 100eko 28koa izan da.

b) Aurrekoa deustan galarazi gabe, enpresa txiki eta ertainen mozkinen lehenengo 5 milioi pezetek ehuneko 20ko tasarekin tributatu dute; enpresa haien mozkinen hurrengo 10 milioiek ehuneko 25eko tasarekin tributatu dute; 15 milioi pezetatik goitiko mozkinak, tasa orokorrarekin.

c) Errekargu iragankorra: Aurrekontu Okorrekin batera doazen kasuan kasuko Legeetan,

Aurrekontuak dagozkien ekitaldirako bakarrik, aurreko a) eta b) ataletan ezarritako zerga-ordainketa tasen gainean errekaru iragankorra ezartzen ahalko da, ehuneko 20tik goitikoa ezin izanen dena.

Zioak: Zerga-ordainketa tasa eraginkorretara egoki nahi da, orokorrean hobari eta kenkari guztiak kenduz, enpresa berriendako edo zabaltze garrantzitsuendako gelditu behar dutenak. Sozietateen gaineko Zergaren eta PFEZaren artean behar den neutralitatea eragin nahi da. Izan ere, %28ko tasaren eta 1,4 koefizientea dibidendu banatuei aplikatzean, PFEZak beretu egiten du Sozietateen gaineko Zerga.

Osoarekiko emendakinean azalduko argudioekin bat, nahi dugu Nafarroarendako berezko zerga-sistema bat, harendako bereziki egina. Sistema horren funtsezko abiapuntua izan behar du zergek, bai Sozietateen gaineko Zergak, bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak dirua biltzeko balio izateak eta horregatik zama-tasa gauzagarriak izan behar dituzte eta elkarrekin neutralak izan behar dute, ezarpen bikoitzik ezarri gabe. Bidezkoak izan behar dute orokortasunari eta kargak ordaintzeko gaitasunaren gaineko zamari dagokienez. Ez du behin ere sorturiko errentaren erdia baino gehiago izan behar. Horrek PFEZean ere eraberritze garrantzitsuak sartzea behartzen du, zerga-tasa gauzagarrietara egokitu, errentarik apalenen gaineko kargen arabera zuzendurik. Etxebizitza, inbertsioa, enplegua eta aurrezkiak sustatzeko neurriak gastuen aurrekontura eraman behar dira, haiek kasuan kasuko beharrei aplikatzean eraginkorrak izan daitezten, errentarik indartsuenen zama-tasa optimizatu beharrean.

Berriro aipatuko ditugu 41etik 47ra bitarteko artikulua kentzeko emendakinean erabiliriko argudioak.

29. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50. artikuluar aurkeztutako emendakina, 1. idazatia aldatzekoa.

“...100eko 32,5ekoa izanen da” dioen tokian hau behar du: “... 100eko 35ekoa izanen da”.

Zioak: Nafarroako IU/EB pertsona juridikoek Sozietateen gaineko Zergaren bidez pairatzen duten zerga-zama murriztearen aurka gaude, gehienbat, aurrekontua defizitean eta zor publiko-

an dagoela. Hori dela eta beharrezkoa gizarreko errenta eta sektore guztien zerga-ahaleginari eustea, administrazio publikoen finantza-askitasuna bermatzeko.

Bestaldetik, zerga honek dakarren zerga-zama Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakunde-ko estatu gehienetako anitzeko zergetan dagoena baino txikiagoa da.

30. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50. artikuluar (karga tasei buruzkoari) aurkeztutako emendakina, lehenengo puntua aldatzekoa. Honelaxe geldituko da:

“50. artikulua. 1. Karga tasa 100eko 35ekoa izanen da”.

52.TIK 56.RA BITARTEKO ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

31. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

52., 53., 54., 55. eta 56. artikuluei aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

Zioak: Klean “zerga-oporrak” ezagutzen direnak arautzen dituzte kendu nahi diren artikuluek, alegia, sozietate sortu berriendako haien mozkinen zerga-ordainketaren hein bateko hobaria. Nafarroako IU/EBk uste du lege proiektuak badaukala emaitza negatiboak konpentsatzeko aski eskuzabala den araubidea eta kuotaren ehuneko 50 konpentsatzea ezin justifikatuzko zerga-onura izanen litzateke.

32. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

VI. Tituluko II. Kapituluko 1. Sailaren izenburuari aurkeztutako emendakina, hau gehitzekoa: “...eta haien gehikuntzendako”.

Benetan kapitala dakarten gehikuntza esanguratsuei ere hobariak eman nahi zaizkie. Izan ere, inbertsioari eta enpleguari benetan laguntzeko

neurri garrantzitsua izan daiteke, aurreko legegintzaldian horretarako ezarritako neurri mota guztiak kentzean.

33. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

52. artikuluari aurkeztutako emendakina, lehengo lehen aldatzekoa. "bi zergaldi" dioen tokian, hau behar du: "bost zergaldi".

Zioak: Hobarirako epea bi urtetik bost urtera zabaltzea. Neurriaren ondorioa aurreko legeriako indarreko inbertsioen ondoriozko kenkariekin (muga daukatenekin), enpleguaren ondoriozko kenkariekin (mugarik ez daukatenekin) eta inbertsioetarako erreserba bereziarekin eta laguntza guztiak kentzearekin parekatzen ahal da. Horrez gain, neurri mota hori eraginkorra izan dadin nahi da, inbertsioa eta enplegua sustatzeko.

34. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

53. artikuluari aurkeztutako emendakina, 1. idazatik f) ataleko adierazpen hau kentzekoa: "eta 43. artikuluko 2. zenbakitik 4.era bitartekotan ezarritako baldintzak betetzen badituzte".

Zioak: 43. artikulua kendu dela eta ñabardura beharrezkoa ez delako.

35. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

53. artikuluari aurkeztutako emendakina, 1. idazatik f) letrari idazketa berria ematekoa. Honela utziko da:

f) Inbertsioak egitea, jardueraren lehenbiziko bi urteetan, 100 milioi pezetako kopurua gutxienez, ibilgetu ukigarriaren elementu berrietan, jardueraren atxikiak daudenetan, eta 43. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, errentan emateko edo, erabilera xede, hirugarrenei lagatzeko izan gabe, 155. artikuluko azken bigarren lehen aldatzekoa izan ezik.

Aurreko lehen aldatzeko deusetan galarazi gabe, ondorio hauetarako, finantza-errentamenduaren bidez eskuraturiko ondasun higiezinetakoa ere

inbertsioetatik joko da, jardueraren lehenbiziko bi urteetan ordainduriko kuotari dagokionean, entitate errentatzaileak ondasunaren kostua berreskuratzeko bada, errenta-hartzaileak erosteko aukera erabiltzeko konpromezua hartzen bada.

Zioak: Ondare elementuak finantza-errentamenduaren bidez eskuratzeko posible egitea.

36. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

53. artikulua, 1. zenbakia, g) letra aldatzeko emendakina.

"Enpresa jardueraren hasieraren odorengo sei hilabeteetan 10 lanpostu sortzea, gutxienez, eta urteko batez besteko kopuru horri eustea..." dioen tokian, "Enpresa jardueraren hasieraren odorengo sei hilabeteetan behin betiko kontratuen bidez betetako 10 lanpostu sortzea, gutxienez, eta urteko batez besteko kopuru horri eustea..."

Zioak: IU/EB de Navarra taldean uste dugu zerga-politika kolokan ez diren lanpostuak sortzeko erabili behar dela.

37. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Emendakina, kentzekoa.

53. artikuluko 2. zenbakia kentzea, beharrezkoa ez delako eta beste emendakin batean proposatu delako 42. artikulua kentzea.

38. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Emendakina, kentzekoa.

54. artikulua kentzea.

Zioak: Aipatzen diren enplegurako eta inbertsiorako laguntzak kentzea beste hainbat emendakinetan eskatu delako.

39. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Emendakina, gehitzekoa.

54. artikulua. Aurreko artikuluetan entitate sortu berriei ezagutzen zaizkien zerga-hobariak aplikagarriak izango zaizkie, baita ere, aipatu artikuluetan ezarritako baldintzak biltzen dituzten zabalteei. 100eko 50eko kuota-hobaria zabalte horren ondoriozko kuotari izango zaio aplikagarri. Zabalte horren ondoriozko kuota kalkulatzeko zabaltean jarri den kapitala eta zabalte baino lehen entitateak zeuzkan fondo berekien arteko erlazioa hartuko da.

Zioak: Gaur egun Nafarroan dauden enpresek enplegua sortzea eta inbertsioa dakarten zabalteeak egin ditzaten bultzatzea.

**59. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
EMENDAKINA****40. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Emendakina, gehitzekoa.

VI Tituluko III Kapitulan, "Barne-ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: dibidenduak eta barne iturriko gainbalioak" 59. artikuluko laugarren puntuko c) letran honako hau gehitzea:

"edo eta banaketak partaidetzaren balioak behera egitea ekarri duenean, zerga ondorioetarako. Kasu honetan, partaidetzaren balioa berreskuratzea ez da zerga-oinarrian sartuko".

Zioak: Aldatzen den puntua teknikoki osatzea

**61. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
EMENDAKINA****41. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Emendakina, gehitzekoa

VI Tituluko III Kapitulan, "Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: dibidenduak eta

mozkinetako partaidetzak" 61. artikuluko bostgarren puntuko lehen lerroaldeari hau gehitzea:

"aipatu mozkinen zenbatekoak partaidetzaren edozein eskualdatzearen bidez Espainian zergapetu direnean izan ezik".

Zioak: Aldatzen den puntua teknikoki osatzea

**63.TIK 72.RA BITARTEKO ARTIKULUEI
AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK****42. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

VI Tituluko IV. Kapituluako 63.tik 72.rako artikulua kentzekoa.

Zioak: Zergaren tipo nominalak ordezkatu direlako tipo errealekin. Inbertsio, berrikuntza eta enpleguan oso zeharka baizik ez dutelako eragiten. Nahiago dugulako inbertsioa, berrikuntza eta enplegua Industri Departamentuak zuzenean susta ditzala, beharrezkoak diren aurrekontubaliabideak eskainiz, laguntza kontrolatu hauek badutelako eta demostratu dutelako eraginkorrak direla, eta, azkenik, aurreko emendakin guztientzat, zerga-neurriak enpresa berrietan eta zabalteetan finkatzen dituztenak.

43. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Emendakina, aldatzekoa.

63. artikuluko lehen lerroaldiari.

"100eko 10eko kuota likidoaren kenkaria..." esaten duenean, "100eko 5eko kuota likidoaren kenkaria" esan behar du.

Zioak: Lege proiektuak proposatzen duen zerga-hobariari gehiegizkoa deritzogu.

44. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

VI. Tituluko IV. Kapituluako 1. Saileko 63. artikulua aldatzea.

“1.- Erakundearen ustiapen ekonomikoaren garapenari dagozkion aktibo finko ukigarri berrietan eginen diren inbertsioek, horretakotzat lurrak hartzen ez direlarik, inbertsio horien zenbatekoaren 100ko 15eko kuota likidoaren kenkaria gauzatzeko bidea emanen dute.

2.- Kenkarirako eskubidea ematen duten inbertsioak egiteaz aparte, subjektu pasiboak, zergaldi berean, aurreko ekitaldiko plantilarekin konparatuz, plantilako batez besteko osoa gehitzen duenean, kenkariaren portzentaia honako hau izango da:

– Plantila-gehikuntza osoa aurreko ekitaldiko batez besteko plantilaren ehuneko 5 eta 10 artekoa baino handiagoa denean, ehuneko 17.

– Plantila-gehikuntza ehuneko 10 eta 15 artekoa bada, ehuneko 19.

– Plantila-gehikuntza ehuneko 15 baino handiagoa bada, ehuneko 20.

Plantila-gehikuntza oso hauek hurrengo hiru ekitaldietan mantendu egin beharko da.

3.- 32. artikuluan ezartzen den kuotaren hoberia ez daukaten entitate sortu berriek 1 zenbakiak aipatzen duen jarduera hasi arteko inbertsioen ehuneko 20ko kuotaren kenkaria edukiko dute.

Zioak: Inbertsioengatiko kenkaria egokitzea, Erreserba Bereziarekin bat etorraziz, lehenik eta behin, baita zerga-administrazio guztien inguruarekin ere, eta enpleguaren sorkuntza areago bultzatuz.

45. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuko 63. artikuluari aurkezturiko emendakina.

Bigarren lerroalde bat gehitzea, lehen eta bigarren lerroaldean artean, honako edukin hau izango duena:

“Aurreko lerroaldean aurreikusten den kenkarirako eskubidea izango dute errentamendu finantzieroaren bidez erositako ondasun higikorrek, erabiltzaileak erosteko aukera betetzeko konprometua hartzen badu. Ondorio hauetarako, inbertsioa entitate errentamendu egileari ondasunaren kostua berreskuratzeari dagokion kuotaren parte ordaintzen zaionean egin dela ulertuko da, entitate errentamendu egileak kenkarirako eskubidea izango ez duelarik.”

Orain arte esandakoaren ondorioz, gaur egungo bigarren lerroaldean “aurreko lerroaldean”

esana kendu eta “aurreko lerroaldeetan” jarri beharko da.

Zioak: Lehengo emendakinean bezala.

46. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Emendakina, gehitzekoa.

63. artikuluari honela dioen laugarren lerroalde gehitzea:

“Kenkariak ezin izango du barne-ezarpen bikoitza galarazteko eta nazioarteko kenkaria eta hobariak kendu eta gero gelditzen den kuota osoaren 100eko 15 baino gehiago jo.”

Zioak: Ibilgetu ukigarrietako elementu berrieta inbertsioagatiko kenkariari muga zehatza ezartzea.

47. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA.

Emendakina, gehitzekoa.

63. artikuluari honela dioen laugarren lerroalde gehitzea:

“Kuota likidoaren kenkaria lehen lerroaldeak aipatzen duen inbertsioen 100eko 20koa izango da, enpresak lan kontratu behin betikoa duen plantilaren batez bestekoa 100eko 10 gehitzen duenean, eta gehikuntza horrek hurrengo bost urteetan irauten badu.”

Zioak: Behin betiko kontratazioa zergaren aldetik bultzatzea.

48. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

VI. Tituluko IV. Kapituluko 1. Saileko “Beharkizunak” 64. artikuluko b) letra aldatzea.

b) “Inbertsioak osatzen dituzten aktiboek 43. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela”.

Zioak: Sartutako aldaketekin egokitzea.

49. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

64. artikuluko b) letraren idazketa berria, ondorengo edukiarekin:

“b) Inbertsioak osatzen dituzten aktiboek 43. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan ezartzen diren baldintzak betetzea, eta hirugarrenek erabil dezaten lagapen edo errentamendu-gai ez izatea, 155. artikuluko azken aurreko leerroaldeak ezartzen duena alde batera utzirik.”

Zioak: 63. artikuluari eginiko emendakinaren ondorioa.

50. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

64. artikuluko c) letrako bigarren leerroaldearen aldaketa, ondorengo edukia izango duena:

“Lehendiko aktibo finko ukigarriaren kontabilitate-balioen baturak jotzen duenaren 100eko 10, eta errentamendu finantziero erregimenean erosi-riko ondasunei dagokien aktibo ez ukigarria, amortizazioak kenduta. Ekitaldian eginiko inbertsioek 50 milioi pezeta baino gehiago jotzen badute, aurreko zenbatekoa 100eko 5 jaitsiko da.”

Zioak: Errentamendu finantzieroaren erregimenean erosi-riko ondasunak inbertsioengatik enkarian sartzearen ondorioa.

51. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

VI. Tituluko IV. Kapituluko 2. Saileko “enkaria, ikerketa eta garapenerako jarduerak burutzeagatik” 66. artikuluko lehen leerroaldea aldatzea.

1.- Ikerketa eta garapenerako jarduerak burutzeak zergaldian zehar kontzeptu honengatik izandako gastuen kuotaren 100eko 30eko enkaria egiteko bidea emanen du.

Baldin eta zergaldian egin diren ikerketa eta garapenerako jardueratan eginiko gastua aurreko bi urteetan eginikoen batz bestekoa baino handiago bada, lehen esandako portzentaia aplikatu da batz bestekoa harrapatu arte, eta ehuneko 50 batz bestekotik gora egiten denean.

Zioak: Aktibo atxikirikoen gaineko enkaria desagertaraztea, alde batetik hobari berezia daukatelako, hau da, amortizatzeko askatasuna, eta beste alde batetik amortizaziorako zuzkidurak enkarirako eskubidea duten gastuak direlako.

Beste alde batetik, enkarietako portzentaia gure inguruko legeriek ezartzen dutenekin bat etorrazten dira.

52. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Emendakina, aldatzekoa.

66. artikuluko 1. zenbakia egindakoa.

“Kuota likidoaren 100eko 30eko enkaria...” diotenean, “kuota likidoaren ehuneko 20ko enkaria...” esan behar du.

Zioak: Lege proiektuak proposatzen duen zerga-hobariari gehiegizko deritzoguz.

53. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Emendakina, gehitzekoa.

66. artikuluko 1. zenbakia leerroalde bat gehitu, honela esango duena:

“Baldin eta zergaldian egin diren ikerketa eta garapenerako jardueratan eginiko gastua aurreko bi urteetan eginikoen batz bestekoa baino handiago bada, lehen esandako portzentaia aplikatu da batz bestekoa harrapatu arte, eta ehuneko 40 batz bestekotik gora egiten duenean.”

Zioak: Enpresek I+G horretan egiten duten ahalegina zergen aldetik ere sustatzea.

54. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Emendakina, gehitzekoa.

67. artikuluko 3 zenbakiko lehen leerroaldeari.

“Ezin izanen da...” eta “...100eko 4...” artean zera esango da, “...errentaren 100eko 15...”

Zioak: Legean gaineratzea muga bat esportazio-jardueren kenkariarengatik sortzen den errentaren gainean.

55. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

68. artikuluari aurkeztutako emendakina, lehenengo lerroaldea aldatzekoa.

“kuota likidoari ... 100eko 15 kentzeko bidea” dioen tokian, honela behar du: “kuota likidoari ... 100eko 10 kentzeko bidea”.

Zioak: Lege proiektuak proposatzen duen zerga-onura gehiegizkoa iruditzen zaigu.

56. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

68. artikuluko 1. idazatiari aurkeztutako emendakina, bigarren lerroalde bat gehitzekoa. Hauxe esanen du:

“Zergaldian lanbide heziketako jarduerengatik eginiko gastuak aurreko bietan eginikoen batezbestekoa baino gehiago izanez gero, aurreko lerroaldekoaz gain, beste kenkari bat ere aplikatuko da, bi kopuruean arteko aldearen ehuneko 15 eginen duena”.

Zioak: Enpresak sortzeko ahaleginean gehitzea piztea, zergei dagokienez.

57. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluari aurkeztutako emendakina, 7 idazatia gehitzekoa. Hauxe esanen du:

“7. Hitzarmen kolektibo batean, gutxienez ere lan denboraren ehuneko 10 murriztearekin batera, gutxienez ere plantila osoaren eta mugarik gabeko lan kontratuko plantilaren ehuneko 10 gehitzea erabakitzen duten enpresek, hurrengo 5 urteetan eusteko konpromezua hartzen badute, zerga-onura hauek aplikatzeko eskubidea izanen dute:

1goa. Badagoen eta berriki eskuratu den ibilgetu ukigarriarendako amortizazio askatasuna.

2garrena. Foru Lege honetan aipatzen den kenkari-portzentaia 100eko 25 gehitzea.

3garrena. Artikulu honetako 1 eta 3 idazatietan aipatzen den kenkaria 100eko 25 gehitzea. Enplegu-gehitzea neurtzeko, abiapuntuko plantila lan denbora murriztu eta banatzea erabakitzen den hitzarmenak indarra hartu aurreko urtean zegoena izanen da.

4garrena. Zerga onura hauek hartu nahi dituzten entitateek ezartze-plan bat aurkeztu beharko diote zerga-administrazioari. Horretan inbertsioetarako eta enplegua sortzeko programa bilduko da, baita lan denbora banatu eta berrantolatzeko proiektu teknikoak ere.

Zioak: Gizarte hitzarmenaren bidez lana banatzeko eta mugarik gabeko kontratuak egiteko aurrerapausuak egiten dituzten enpresei bereziki laguntzeko trataera biltzea.

58. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

VI. Tituluko IV. Kapituluako 4. Saileko “Kapitulu honetan aurreikusitako kenkarien gaineko arau amankomunak” izeneko 72. artikuluari aurkeztutako emendakina, hirugarren ataleko lehenengo lerroaldea eta seigarren ataleko hirugarren lerroaldea aldatzekoa.

A) Hirugarren ataleko lehenengo lerroaldea aldatzea.

3.- Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak, salbu eta 63. artikuluan, ehuneko 20ko portzentaia aplikatzekoa bada, eta 71. artikuluan ezarritakoak, kuota mugarik edukiko ez baitute, baita muga daukaten aurreko ekitaldien ondoriozko kenkariak ere, ezin izanen dute elkarrekin barne ezarpen eta nazioarteko ezarpen bikoitzak saihesteko hobarietan eta kenkarietan murrizturiko kuota osoaren ehuneko 40 gainditu.

Zioak: Kenkari guzitik harmonizatzea, enpleguaren sorkuntzari atxikiriko inbertsioen ondoriozko kenkariak kuota mugarik edukiko ez dutela ezartzen delarik.

B) Seigarren ataleko hirugarren lerroaldea aldatzea.

“Ondotik, aurreko 3 zenbakian ezarritako muga aplikatzen diren ekitaldiaren kenkariak gauzatuko dira, beti ere, aurreko lerroaldeko kenkarien eta lerroalde honetakoan artean osotara 100eko 40 muga gainditzen ez den bitartean”.

Zioak: Aldaketa teknikoa, aurrekoekin bat datorrena.

59. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

72. artikuluari aurkeztutako emendakina, 3 idazatiko lehenengo leerroaldea eta 6 idazatiko hirugarren leerroaldea aldatzekoa.

Bi leerroaldeetan “100eko 35” dioen tokian, “100eko 40” behar du.

Zioak: Kuota-kenkariaren muga gehitzea, aurreko emendakinen bidez, zerga pizgarri horren onuradun izan daitezkeen ondare elementu berriak onartzearen ondorioz.

80. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

60. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

VII. Tituluko III. Kapituluko “Aitorpenak” izeneko 80. artikuluari aurkeztutako emendakina, lehenengo ataleko bigarren leerroaldea aldatzekoa.

“Aitorpena zergaldia bukatu eta sei hilabete pasa ondoren 30 egun naturaleko epearen barnean aurkeztuko da”.

Zioak: Aitorpena aurkezteko epea hainbeste festa eta opor dauden uztailean izaten denez, komeni da luzatzea, aitorpena epe barruan aurkeztu ahal izateko.

91. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

61. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

VIII. Tituluko “Etetea” izeneko 91. artikuluari aurkeztutako emendakina, hirugarren atala kentzekoa.

Zioak: Uste dugu preskripzioa ez daitekeela zabal kasu batzuetarako bakarrik eta beste batzuetarako ez.

156. ETA 157. ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

62. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

XIII. Kapituluari, alegia, 156. eta 157. artikuluei aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

Zioak: Lege proiektuko XIII. Kapituluan zerga-oinarria ezartzeko jardunbidea bitxia da oso, pertsona juridiko batzuetarako bakarrik, “zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroendako” hain zuzen ere. Euskadiko foru ogasunek bildu zuten duela hilabete batzuk kasuan kasuko zerga arauetan eta, dirudienez, gure komunitatean nazioarteko enpresa-talde garrantzitsuen zuzendaritza erdiratua ezartzea du xede, bereziki aldekoa duten zerga trataera baten bidez.

Irudi berria da, Nafarroako IU/EBk gaizki deritzona. Izan ere, berriro ere, gure komunitatea zentzuzkoak ez diren zerga-desarmeen bidez sustatu nahi da kanpoan.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

63. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren Xedapen Gehigarriari aurkeztutako emendakina, lehenengo atala aldatzekoa.

1.- “Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegiak ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legeko definizio eta eragiketak aipatzen dituzenean, Lege honetako 133. artikuluan zehaztutako bategite, zatitze, jarduera alorren ekartze eta balore-trukatzeari buruzko zerga-araubidea aipatzen duela ulertuko da.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zergari buruzko arautegiak 8/1992 Legeko bategite eta zatitzearen definizioak aipatzen dituzenean, Lege honetako 133. artikuluko 1, 2, 3 eta 5 atalak eta 144. artikulua aipatzen dituela ulertuko da”.

Zioak: BEZean eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zergan bategiteei, zatitzei, ekartzei eta balore-trukatzei aplikatuko zaizkien onurak gehiago zehaztea.

64. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren Xedapen Gehigarriari aurkeztutako emendakina, idazketa berria ematekoa.

1.- "Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegiak ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legeko definizio eta eragiketak aipatzen dituenean, Lege honetako 133. artikuluan zehaztutakoATEGITE, zatitze, jarduera alorren ekartze eta balore-trukatzeari buruzko zerga-araubidea aipatzen duela ulertuko da.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zergari buruzko arautegiak 8/1992 LegekoATEGITE eta zatitzearen definizioak aipatzen dituenean, Lege honetako 133. artikuluko 1, 2, 3 eta 5 atalak eta 144. artikulua aipatzen dituela ulertuko da".

Zioak: Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko ZerganATEGITEei, zatitzei, ekartzei eta balore-trukatzei aplikatuko zaizkien onurak gehiago zehaztea.

**BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRARI
AURKEZTUTAKO EMENDAKINA****65. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Bosgarren Xedapen Iragankorrari aurkeztutako emendakina, hau gehitzekoa: "haien kontratua Lege honek indarra hartu baino lehen izenpetu bada".

Zioak: Benetan bereganaturiko eskubideak errespetatzea, besterik ez.

**ZORTZIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRARI
AURKEZTUTAKO EMENDAKINA****66. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Zortzigarren Xedapen Iragankorrari aurkeztutako emendakina, hau gehitzekoa:

3.- Kasu horietan karga-tasak Lege hau baino lehen indarra zutenekin bat etorriko dira.

4.- Subjektu pasiboak aukera izanen du xedapen iragankor honetan ezarriko edo Lege honetan bilduriko tasa eta arautegiaren araberako zerga-ordainketa aplikatzeko.

Zioak: Zerga-ordainketaren tasen murrizketaren ondorioz beste hobari bat egotea saihestea, 50. artikuluari aurkeztutako emendakinean esan bezala.

**HOGEITA BATGARREN XEDAPEN
IRAGANKORRARI AURKEZTUTAKO
EMENDAKINA****67. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita batgarren Xedapen Iragankorrari aurkeztutako emendakina, haren testua aldatzekoa:

Hogeitabat garrena. Erreserba Bereziarendako Dotazioak.

12/1993 Foru Legean aipatzen den Erreserba Bereziari dotazioak egiten dizkieten subjektu pasiboek haien ehuneko 25 izanen dute muga zerga-oinarriaren murrizketan.

Zioak: Bereganaturiko eskubidea zabaldu gabe eustea, zerga-ordainketaren tasa 100eko 28 arte apaltzeko eta Erreserba Berezia kentzeko aurreko emendakinetan izaniko proposamenaren ondorioz.

**HOGEITA HIRUGARREN XEDAPEN
IRAGANKORRARI AURKEZTUTAKO
EMENDAKINA****68. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita hirugarren Xedapen Iragankorra, "Ezarpn bikoitzaren ondoriozko kenkariak" izenekoa, gehitzeko emendakina.

"Hirugarren Kapituluako 59., 60., 61. eta 62. artikuluetan ezarpn bikoitza saihesteko ezarriko 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera hastekoa

denaren aurreko ekitaldian izanen da aplikatzea”.

Zioak: Ezarpen bikoitza zuzentzeko sistema aplikatu beharra, Estatuko eta Euskadiko Zerga Administrazioetan aplikatzekoak diren zergaldietan.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEARI
AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**

69. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Indargabetzaileari aurkeztutako emendakina, 2. idazatik bigarren lerroaldetik hau kentzekoa: “22. artikuluko B letra eta”.

Zioak: VI. Tituluko IV. Kapitulua kentzeko emendakinekin bat.

70. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Indargabetzaileari aurkeztutako emendakina, 2. idazatik hirugarren lerroaldea kentzekoa.

Zioak: Aipua gaizki dago, 1986/19 Foru Legeko 17. Xedapen Gehigarria baita. Bestaldetik, ez du indarrik, epea bukatua dago eta.

71. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Indargabetzaileari aurkeztutako emendakina, bigarren ataleko bosgarren lerroaldea kentzekoa.

Zioak: Kendu nahi den lerroaldeak 3/88 Foru Legeko 62. artikulua indarra duela esan nahi du. Horren arabera, PFEZean eta Sozietateen gaineko Zergan, gehitzeak eta errendimenduak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zergan ezarritako balio errearen arabera zenbatetsiko dira, hura gehienekoa dela.

Arau horrek ez du inolako azalpenik. Izan ere, Sozietateen gaineko Zergak errenta erreala zamapetu behar duelako, ez errenta zenbatetsia. Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak kaudimenak ezartzen ditu merkatuko prezioak diharduen zenbait egoeratan. Pentsaezina dena da abiapuntuko prezioa Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zergakoa izatea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua

ATZERA BIDLITAKO EMENDAKINAK

Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontuetako Batzordeko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an eginiko bilkuran, Unión del Pueblo Navarro Parlamentari Taldeko bozeramalea den Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentariak aurkezturiko idazkia onartzea erabaki du. Beraz, Talde honek Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zizkion emendakinek atzera bidal-

tzea onartzen du. Atzera bidalitako emendakinek honako Erregistro zenbakia zeukaten: 1.273-1, 1.272-5 eta 1.273-6. 1996ko abenduaren 31n egin zen antolamenduaren arabera, emendakinek hauek 2, 22 eta 27 zk.koak ziren.

Iruñean, 1996ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Luis Gerardo López Eslava

F Sails:
GALDERAK

Iruñeko Hizkuntza Eskolako ikasle kopurua eta ikasleen bizilekuari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak Iruñeko Hizkuntza Eskolako ikasle kopurua eta ikasleen bizilekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko urriaren 31ko 58 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotariko-Eusko Alkartasuna” Parlamentari Taldeak Iruñeko Hizkuntz Eskolako ikasle kopu-

ria eta ikasleen bizilekuari buruz egin duen eta idatziz erantzun behar den galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondoko erantzun hau jakinarazi nahi du:

Hizkuntzak ikasten duen ikasle kopurua eta ikasleen bizilekuaren gainean egin duen galderari ematen zaion erantzunaren berri jakiteko, ikus bitez erantzun honekin doazen I, II, III, IV eta V eraskinak.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 20a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

I. ERASKINA.

Erregimen: Ofiziala

Herria: Iruñea. (Iruñeko Hizkuntz Eskola). 96/97 ikasturtea

HIZKUNTZA IKASTURTEA	ALEMANA		EUSKERA		FRANTSESA		INGELESA		ITALIERA		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
1.	61	113	63	140	34	116	96	206	19	56	273	631
2.	39	80	27	99	22	75	82	193	16	49	186	496
3.	26	64	31	81	28	98	67	212	11	57	163	512
Z.E. (1)												
Z.E. GUZTIRA	126	257	121	320	84	289	245	611	46	162	622	1639
4º	17	54	25	75	21	78	102	223	4	20	169	450
5º	12	26	53	121	10	65	47	183	2	16	124	411
G.Z. (1)												
G.Z. GUZTIRA	29	80	78	196	31	143	149	406	6	36	293	861
GUZTIRA	155	337	199	516	115	432	394	1017	52	198	915	2500

(1) Ikasle libreentzat bakarrik.

Matrikulazio 2. epeari buruzko datuak falta (azaroa)

II. ERASKINA.

Erregimen: Libre (aurreko ikasturtea).

Herria: Iruñea. (Iruñeko Hizkuntz Eskola). 96/97 ikasturtea

HIZKUNTZA IKASTURTEA	ALEMANA		EUSKERA		FRANTSESA		INGELESA		ITALIERA		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
1												
2												
3												
Z.E. (1)	25	47	340	539	72	227	425	617	11	21	873	1451
Z.E. GUZTIRA	25	47	340	539	72	227	425	617	11	21	873	1451
4			1	7							1	7
5	3	3	21	50	1	4	13	48			35	105
G.Z. (1)	5	14	258	351	16	49	101	139	1	6	381	559
G.Z. GUZTIRA	5	17	280	408	17	53	114	187	1	6	417	671
GUZTIRA	30	64	620	947	89	280	539	804	12	27	1290	2122

(1) Ikasle libreentzat bakarrik.

III. ERASKINA.

Erregimen: Ofiziala

Herria: Tutera. (HEO). 96/97 ikasturtea

HIZKUNTZA	ALEMANA		EUSKERA		FRANTSESA		INGELESA		ITALIERA		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
IKASTURTEA	18	42	8	19	19	68	87	46	80	126		300
1	9	15	5	17	22	37	51	27	73	100		197
2	6	12	2	9	11	4	22	23	53	76		131
Z.E. (1)												
Z.E. GUZTIRA	33	69	15	45	60	37	127	96	206	302		628
4			2	9	11	5	21	26	51	77		114
5			3	6	9	4	11	7	34	41		65
G.Z. (1)												
G.Z. GUZTIRA			5	15	20	9	32	33	85	118		179
GUZTIRA	33	69	20	60	80	46	159	129	291	420		807

(1) Ikasle libreentzat bakarrik.

IV. ERASKINA.

Erregimen: Libre (aurreko ikasturtea).

Herria: Tutera. (HEO). 96/97 ikasturtea.

HIZKUNTZA	ALEMANA		EUSKERA		FRANTSESA		INGELESA		ITALIERA		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
IKASTURTEA												
1												
2												
3												
Z.E. (1)	5	3	1	9	10	7	11	39	49	88		124
Z.E. GUZTIRA	5	3	1	9	10	7	11	39	49	88		124
4												
5								0	1	1		1
Z.G. (1)	1	1	4	6	10	2	4	8	10	18		36
Z.G. GUZTIRA	1	1	4	6	10	2	4	8	11	19		37
GUZTIRA	6	4	5	15	20	9	15	47	60	107		161

(1) Ikasle libreentzat bakarrik.

V. ERASKINA. Irakaskuntza Ofizialean ari diren ikasleen estatistika, herrien arabera.

POSTA K.	HERRIA	IKASLEAK	POSTA K.	HERRIA	IKASLEAK
09200	MIRANDA DE EBRO	1	31470	ZULUETA	1
20	DONOSTIA	1	31481	ARTAXO	2
20100	ERRENTERIA	1	31484	ELKANO	1
20180	OIARTZUN	1	31486	ELKANO	5
20200	BEASAIN	1	31490	CASEDA	5
20214	SEGURA	1	31500	TUTERA	10
20230	LEGAZPIA	1	31512	FONTELLAS	1
20500	ARRASATE	1	31520	CASCANTE	2
22300	BARBASTRO	1	31521	MURCHANTE	1
22700	JACA	1	31540	BUÑUEL	1
26500	CALAHORRA	1	31560	AZAGRA	1
26580	ARNEDO	1	31570	SAN ADRIAN	1
31100	GARES	4	31580	LODOSA	2
31110	NOAIN	10	11591	CORELLA	1
31119	IMARKOAIN	1	31593	FITERO	2
31120	BERIAIN	2	31600	BURLATA	150
31131	ZIRAUKI	1	31610	ATARRABIA	61
31133	UTERGA	1	31620	UHARTE	25
31140	ARTAXONA	4	31630	ZUBIRI	1
31150	MENDIGORRIA	5	31638	EUGI	1
31151	OBANOS	3	31639	URTASUN	1
31153	ENERITZ	3	31657	ERRO	1
31160	ORKOIEIEN	4	31660	LUZAIDE	2
31170	ARATZURI	5	31671	ORBARA	1
31172	ARTETA	2	31680	OTSAGI	1
31173	IZU	1	31690	EZKAROZE	1
31174	ETXAURI	1	31692	GARAIOA	1
31180	ZIZUR NAGUSIA	34	31694	AURIZPERRI	4
31190	ZIZUR TXIKIA	3	31697	ERRO	2
31191	IRUÑEA	12	31698	URDAITZ	2
31192	MUTILOAGOITI	22	31699	ZABALDIKA	7
31194	ARRE	5	31700	ELIZONDO	5
31195	BERRIOZAR	11	31710	ZUGARRAMURDI	1
31200	LIZARRA	11	31713	ARIZKUN	1
31210	URANTZIA	1	31720	ORONoz MUGAIRI	2
31251	LARRAGA	1	31740	DONEZTEBE	5
31252	BERBINTZANA	3	31746	ZUBIETA	1
31260	LERIN	1	31751	OITZ	1
31261	ANDOSILLA	2	31753	LABAIEN	1
31262	ALLO	1	31770	LESAKA	1
31263	DEIKAZTELU	2	31780	BERA	2
31264	SOLANAKO ABERIN	1	31790	IGANTZI	2
31280	MENDILIBARRI	1	31796	ANIZ-BAZTAN	1
31281	ANTZIN	1	31798	LANTZ	1
31282	ASARTA	1	31799	ZIAURRITZ	2
31293	SESMA	1	31800	ALTSASU	2
31300	TAFALLA	8	31809	OLAZATI	1
31310	ZARRAKAZTELU	2	31810	URDIAIN	2
31313	MURILLO EL FRUTO	1	31820	ETXARRI ARANATZ	10
31314	SANTACARA	1	31829	LIZARRAGA	1
31360	FUNES	1	31830	LAKUNTZA	2
31370	FALCES	1	31839	ARBIZU	4
31380	CAPAROSO	1	31840	ARAKIL UHARTE	2
31382	IRUÑEA	1	31850	IHABAR	2
31390	ERRIBERRI	5	31860	IRURTZUN	6
31392	PITILLAS	1	31867	GELBENTZU	1
31394	PUEIO	1	31870	LEKUNBERRI	3
31395	BARASOAIN	1	31879	IRIBAS	1
31396	OLORITZ	1	31880	LEITZA	2
31398	BIURRUN	4	31890	SARATSATE	1
31400	PAMPLONA	12	31899	ALDABA	1
31416	URZAINKI	1	36980	EL GROVE	1
31417	IZABA	2	39770	LAREDO	1
31420	URROTZ	1	48	GERNIKA-LUMO	1
31430	AGOIZ	3	48902	BARAKALDO	1
31440	ILUNBERRI	3	48950	ERANDIO	1
31448	ARRIPODAS	2	50	ZARAGOZA	1
31450	NABASKOITZE	1	50600	EJEA CABALLEROS	1
31451	ITZALLE	1	HIRUBURUA	IRUÑEA	2.416
31460	OIBAR	1		GUZTIRA	3.023

VI. ERASKINA. Irakaskuntza Librean ari diren ikasleen estatistika, herrien arabera.

POSTA K.	HERRIA	IKASLEAK	POSTA K.	HERRIA	IKASLEAK
20100	ERENTERIA	3	31440	ILUNBERRI	9
20110	PASAIA	1	31460	OIBAR	4
20130	URNIETA	1	31481	ARTAXO	1
20247	ZALDIBIA	1	31486	ELKANO	5
20260	ALEGIA	1	31487	LIEDENA	1
20270	ANOETA	2	31490	CASEDA	2
20300	IRUN	3	31500	TUTERA	5
20400	TOLOSA	18	31513	ARGUEDAS	1
20491	GAZTELU	1	31560	AZAGRA	1
20493	BERASTEGI	2	31570	SAN ADRIAN	2
20500	ARRASATE	1	31580	LODOSA	30
20577	ANTZUOLA	1	31587	MENDAVIA	2
20600	EIBAR	1	31589	SARTAGUDA	1
20730	AZPEITIA	2	31591	CORELLA	1
20800	ZARAUTZ	1	31600	BURLATA	68
31100	GARES	4	31610	ATARRABIA	40
31110	NOAIN	6	31620	UHARTE	17
31119	IMARKOAIN	2	31630	ZUBIRI	1
31131	ZIRAUKI	1	31638	EUGI	2
31133	LEGARDA	2	31639	URTASUN	1
31140	ARTAXONA	5	31640	AURITZ	2
31150	MENDIGORRIA	1	31680	OTSAGI	3
31151	OBANOS	2	31690	EZKAROZE	1
31153	ADIOTZ	2	31691	JAUURIETA	1
31160	ORKOIEN	1	31693	GARRALDA	1
31170	ITZA	1	31698	LARRASOAÑA	4
31173	IZU	1	31699	IROTZ	1
31174	LARRAIA	1	31700	ELIZONDO	69
31179	BEARIN	3	31710	ZUGARRAMURDI	3
31180	ZIZUR NAGUSIA	55	31711	URDAZUBI	8
31190	GAZOLATZ	5	31712	URDAZUBI	1
31191	BERIAIN	4	31713	ARIZKUN	10
31192	MUTILOABEITI	15	31714	ERRATZU	7
31194	ARRE	7	31715	AZPILKUETA	11
31195	BERRIOZAR	16	31720	ORONoz MUGAIRI	1
31200	LIZARRA	101	31730	IRURITA	26
31210	URANTZIA	2	31740	DONEZTEBE	34
31230	VIANA	1	31744	ELGORRIAGA	1
31241	ARBEITZA	2	31745	ITUREN	9
31243	ARRONITZ	3	31746	ZUBIETA	6
31250	OTEIZTA	1	31747	SALDIAS	5
31251	LARRAGA	4	31748	ERATSUN	4
31252	BERBINTZANA	1	31750	GAZTELU	3
31253	MIRANDA DE ARGA	3	31751	OITZ	2
31260	LERIN	1	31752	URROTZ	5
31263	DEIKAZTELU	1	31753	LABAIEN	7
31264	IGUZKITA MUNIAIN	3	31760	ETXALAR	25
31272	ZUDAIRE	1	31770	LESAKA	41
31280	ABAIGAR	1	31780	BERA	83
31281	ANTZIN	2	31790	IGANTZI	25
31290	ARTABIA	1	31791	SUNBILLA	12
31292	MURUGARREN	3	31792	LEGASA	18
31293	SESMA	1	31793	NARBARTE	5
31300	TAFALLA	30	31794	ARRAIOZ	5
31310	ZARRAKAZTELU	4	31795	LEKAROZ	9
31330	ALESBES	1	31796	ANIZ	12
31340	MARCILLA	2	31797	AUZA	7
31350	AZKOIEN	7	31798	LANTZ	3
31360	FUNES	3	31799	OSTITZ	1
31370	FALCES	1	31800	ALTSASU	25
31380	CAPARROSO	1	31809	OLAZTI	14
31390	ERRIBERRI	4	31810	BAKAIKU	10
31395	GARINOAIN	1	31820	ETXARRI ARANATZ	48
31396	OLORITZ	1	31829	DORRAU	2
31400	ZANGOZA	16	31830	LAKUNTZA	11
31409	ROCAFORTE	1	31839	ARBIZU	13
31411	XABIER	2	31840	ARAKIL UHARTE	1
31418	UZTARROZE	1	31850	ARAKIL HIRIBERRI	3
31430	AGOITZ	8	31860	IRURTZUN	25

C. POSTAL	POBLACION	ALUMNOS	C. POSTAL	POBLACION	ALUMNOS
31867	GELBENTZU	2	31880	LEITZA	7
31868	IZURDIAGA	1	31890	BETELU	3
31869	OSKOTZ	1	31891	UZTEGI	6
31870	LEKUNBERRI	6	31892	SARASA	1
31876	ARESO	1	48280	LEKEITIO	1
31877	ALBIASU	2	48940	LEIOA	1
31878	ARRUITZ	2	HIRIBURUA	IRUÑEA	1.779
31879	IRIBAS	4		GUZTIRA	3.022



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--